



2009KO APIRILAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko apirilaren zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko martxoaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (336.795,17 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-002 zbk.dun esped.: egunero zerbitzua ematea, egunean ordu bete. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-0013 zbk.dun esped.: logela baten alokairurako gastuak ordaintzeko hilean 165€ko dirulaguntza ematea, apiriletik azarora. Ematen zaiona Eusko jaurlaritzak ezarritako gehieneko da.

Garraiorako dirulaguntza.-

- 615 zbk. dun esped.: gizakia helburu programara joatearen garraio gastuetarako hilean 53€ ematea, urtarrila eta otsailean.

...///...

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Goierri bailarako zabalkundea duen Goierri telebistaren jarduna dela eta, goierriko udalek GOIEKI, S.A. garapen agentziaren bidez, udal bakoitzak Goierri Telebistari biztanleko 2 euroko dirulaguntza emateko hitzarmenak izenpetzea adostu zen. Hori horrela, 2007ko urtarrilaren 11n, Lazkaoko Udala eta Goierri Telebista kudeatzen duen Goierriko Ikuskari, S.L. enpresaren arteko hitzarmena izenpetu zen. Hitzarmen honen baitan Lazkaoko Udalak biztanle bakoitzeko 2 euroko dirulaguntza ematearen konpromezua hartzen zuen. 2008 urtean ere, Lazkaoko Udalak diru ekarpen bera egin zion Goierriko Ikuskari, S.L. enpresari.

Orain Tokiko Gobernu Batzar honetara proposamen bera aurkezten da, hau da, 2009 urtean Goierri Telbistaren funtzionamendua dela eta, Goierriko Ikuskari, S.L. enpresari biztanleko 2 euroko ekarpena egitea. Guztira HAMAR MILA LAUREHUN ETA SEI (10.406 €) EURO. Hitzartutakoaren arabera ordainketa, bi zatitan egingo litzateke, lehen erdia orain eta bigarren erdia 2009ko irailaren 15ean.

Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak Tokiko Gobernu Batzar honi, Lazkao Kirol Elkarteari, kirol jardueren antolaketa eta sustapen gisa 2009ko dirulaguntzaren kontura eta aurrerapen gisa, SEI MILA (6.000 €) euro emateko proposamena egiten dio.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, prosamena onartzea erabakitzen du.

VI.- 2009KO SAN PRUDENTZIO JAIAK.-

Aurtengo San Prudentzio jaiak direla eta, jai hauen egitaraua eta bere aurrekontua aurkezten dira Tokiko Gobernu Batzar honetara, bere onarpenerako.

2009ko San prudentzio Jaiak apirilaren 24an hasi eta maiatzaren 3an amaituko dira, maiatzaren 1 eta 2an Lazkaomendi auzoan izango direlarik.

2009ko San prudentzio Jaien egitarauaren aurrekontua, guztira, EHUN MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU (100.783 €) EURO da.

Tokiko Gobernu batzarrak, 2009ko San prudentzio jaien egitarau hau, bere espedientean aurkitzen dena, aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin berau onartzea erabakitzen du.

VII.- 2009KO SAN PRUDENTZIO JAIETAKO TXOZNAK.-

Festetan irekitzen diren taberna eta txoznen inguruan 3 eskaera egon dira eta hirurak txoznak jartzeko eskariak dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskariak aztertzeko garaian aurreko urteetako erizpideak jarraitzea ikusten du egoki eta ondorioz, lokaletan jarritako baimendutako tabernen kopurua gehienera ere 2 izatea eta txoznen kopurua, berriz, 4.

...///...



...///...

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskaera hauek aztertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Txoznak jartzeko hiru baimen ematea eskaera egin duten ondorengo hiru eskatzai-leei: Haritz Larrauri Lasa, N.A. Zbkia. 44126560W; Iker Iruin Arruti, N.A. Zbkia. 72451567A; eta Haizea Begiristain Laimuns, N.A. Zbkia. 72460051T.

Txoznak jartzeko ematen zaizkien baimenei jarraian adierazten diren baldintzak ezartzen zaizkie:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.
- Txozna eta taberna bakoitzak 154 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Txozna eta taberna hauen jardura apirilaren 24tik maiatzaren 1era mugatu da soil soilik.
- Ixte ordutegia, geihenez ere goizeko lau terdiak izango da.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira ikus daitezkeen tokietan.
- Txoznak maiatzaren 4rako kenduta egon beharko dira.

Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko ban-
ketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudala-
rik.



